

GIZARTE EKONOMIAREN BIGARREN LURRALDE DOSSIERRA



OVES - GEEB

Observatorio Vasco
de Economía Social
Gizarte Ekonomiako
Euskal Behatokia



GEZKI

UPV/EHUko Gizarte
Ekonomia eta Zuzenbide
Kooperatiboaren Institutua

Instituto de Derecho
Cooperativo y Economía
Social de la UPV/EHU

Elhuyar Plaza, 2 Donostia
943 017 462

www.oves-geeb.eus
gezki.ekonomia.teknikaria@ehu.eus



OVES
GEEB



OVES / GEEB

Gizarte Ekonomiako Euskal Behatokia
Observatorio Vasco de Economía Social

Centro Carlos Santamaria Zentroa
Plaza Elhuyar 2, 20018 Donostia - San Sebastian
Tel.: 943 017 462
gezki.ekonomia.teknikaria@ehu.eus
www.oves-geeb.eus

2023ko APIRILA

Aholku Batzordea:

ASLE: Euskadiko Lan Sozietateen Elkarte
Eusko Jaurilaritzako Gizarte Ekonomia zuzendaritza
EHLABE: Euskal Herriko Lan Babestuaren Elkarte
Euskadiko BGAE Federazioa
GEZKI: Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide
Kooperatiboaren Institutoa
GIZATEA: Euskadiko Gizarteratzeko eta Laneratzeko Enpresen Elkarte
KONFEKOOP: Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa
Mondragon Unibertsitatea
REAS Euskadi: Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea
Deustuko Unibertsitatea

Finantzatzailea:



AURKIBIDEA



OVES
GEEB



1. ZATIA: DOSSIERRA-REN AURKEZPENA

1.1. Sarrera	9
1.2. OVES/GEEB Gizarte Ekonomiaren Euskal Behatokia	10
1.3. Gizarte Ekonomiaren Unibertsoa	12
1.4. Metodologia eta Informazio Iturriak	13
1.5. Euskal Autonomia Erkidegoko Eskualdeak	14

2. ZATIA: TESTUINGURU SOZIOEKONOMIKOA

2.1. Demografia	16
2.2. Jarduera Ekonomikoa	19
2.3. Lan Merkatua	27
2.4. Gizarte Egitura	33


3. ZATIA: GIZARTE EKONOMIA EAEn

3.1. Sarrera	38
3.2. Gizarte Ekonomiaren Unibertsoa: zifrak	39
3.3. Gizarte Ekonomia Guztira 2020	40
3.4. Gizarte Ekonomia Klasikoa	47

4. ZATIA: ONDORIOAK

ERABILITAKO BALIABIDEAK	55
-------------------------	----

ERANSKINA	64
-----------	----



TAULEN INDIZEA



OVES
GEEB




1. Taula: Euskal Gizarte Ekonomiaren Unibertsoa	12
2. Taula: EAEko eskualdeen baliokidetasuna	14
3. Taula: Jarduera-sektoreak	20
4. Taula: Langabezia-tasa handiena eta txikiena duen eskualdeen bilakaera 2018-2020	28
5. Taula: : Gizarte Ekonomiaren datu orokorrak. 2020.	40
6. Taula: Gizarte Ekonomiako enpleguaren eta fakturazioaren banaketa erakunde motaren arabera. 2020.	64

GRAFIKOEN INDIZEA

1. Grafikoa: Enpleguaren banaketa eta Gizarte Ekonomiaren fakturazioa. 2020.	41
2. Grafikoa: GEko enplegu, fakturazio eta establezimenduen bilakaera 2004-2021.	42

MAPEN INDIZEA

1. Mapa: EAEko eskualdeak	14
2. Mapa: Biztanleria guztira, eskualdeka	16
3. Mapa: Biztanleriaren detsitatea, eskualdeka	16
4. Mapa: Biztanleriaren hazkunda. 2010-2021.	17
5. Mapa: Biztanleriaren ordezkapen indizea. 2021.	18
6. Mapa: BPG per capita, eskualdeka. 2019.	19
7. Mapa: BPG per capitaren bilakaera. 2010-2019.	20
8. Mapa: BPG per capita. Lehen sektorea.	21





OVES
GEEB



MAPEN INDIZEA

9. Mapa: BPG per capita. Bigarren sektorea.	21
10. Mapa: BPG per capita. Eraikuntza sektorea.	22
11. Mapa: BPG per capita. Zerbitzuen sektorea.	22
12. Mapa: Establezimenduen hazkundera. 2010-2021.	23
13. Mapa: Establezimenduak. Lehenengo sektorea.	24
14. Mapa: Establezimenduak. Bigarren sektorea.	24
15. Mapa: Establezimenduak. Eraikuntza sektorea.	25
16. Mapa: Establezimenduak. Hirugarren sektorea.	25
17. Mapa: Langabezia-tasa eskualdeka	27
18. Mapa: Emakumeen kontratazioaren ehunekoa	28
19. Mapa: Emakumeen langabezia-portzentajea. 2020.	29
20. Mapa: Aldi baterako kontratazioaren ehunekoa. 2020.	30
21. Mapa: Biztanleria okupatua (%). Lehen sektorea.	30
22. Mapa: Biztanleria okupatua (%). Bigarren sektorea	31
23. Mapa: Biztanleria okupatua (%). Eraikuntza sektorea	31
24. Mapa: Biztanleria okupatua (%). Hirugarren sektorea	32
25. Mapa: Familia errenta.	33
26. Mapa: Familia errentaren bilakaera. 2009-2019.	34
27. Mapa: Genero Arrakala	34
28. Mapa: Oinarrizko formakuntza (%)	35

MAPEN INDIZEA



OVES
GEEB



29. Mapa: Formakuntza ertaina (%)	36
30. Mapa: Goi-mailako Formakuntza (%)	36
31. Mapa: Enplegua GEn, lurralde historikoka. 2020.	43
32. Mapa: GEren enpleguaren pisu erlatiboa, lurraldeka. 2020.	44
33. Mapa: GEren establezimenduak, lurraldeka. 2020.	45
34. Mapa: GEren BEG, lurraldeka. 2020.	46
35. Mapa: .GE Klasikoa. Enplegua, eskualdeka. 2020.	48
36. Mapa: GE Klasikoaren enpleguaren (%) eskualdeka. 2020.	49
37. Mapa: .GE Klasikoa. Lanpostuak industrian, eskualdeka. 2020.	50
38. Mapa: .GE Klasikoa. Lanpostuak zerbitzu sektorean, eskualdeka. 2020.	50
39. Mapa: GE Klasikoaren establezimenduak, lurraldeka. 2020.	51
40. Mapa: GE Klasikoaren establezimenduak, eskualdeka. 2020.	52
41. Mapa: Esportazioak fakturazioarekiko, eskualdeka. 2020.	53
42. Mapa: ES klasikoaren itxurazko produktibitatea eskualdeka. 2020.	54
43. Mapa: Establezimendu kopurua eta populazio dentsitatea	57
44. Mapa: Eskualdeko langabezia-tasa eta kooperatibek eta lan-sozietateek enpleguan duten pisua (%)	58
45. Mapa: Urteko per capita BPGa eta kooperatiben eta lan-sozietateen enpleguaren pisua eskualdeko enpleguan	59
46. Mapa: Erregistratutako langabeziaren feminizazioa eta ES klasikoaren pisua enplegu osoan, eskualdeka	60
47. Mapa: Kontratazioaren behin-behinekotasun tasa (%) eta enplegua GE klasikoa	61
48. Mapa: Eskualdeko BEG industrial (%) eta ES klasikoko industria-enplegua	62
49. Mapa: Zerbitzu sektorearen BEG eskualdeka eta GE klasikoaren enplegua zerbitzu sektorean.	63



OVES
GEEB



GEZKI

1. ZATIA: DOSSIER-AREN AURKEZPENA

SARRERA

OVES/GEEB

GIZARTE EKONOMIAREN UNIBERTSOA

METODOLOGIA ETA INFORMAZIO ITURRIAK

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ESKUALDEAK




1. 1. SARRERA

Gizarte Ekonomiaren Euskal Behatokiak (aurrerantzean, GEEB) Euskal Autonomia Erkidegoko (aurrerantzean, EAE) Gizarte Ekonomiari buruzko bigarren dosierra aurkeztuko du. Edizio honetan, Gizarte Ekonomiaren bilakaeraren analisiaren ildotik jarraituko dugu eta 2020. urte arteko datuak kontuan izango dira sektorearen errealitatea azaltzerakoan, bai denbora-testuinguruari zein lurralde-testuinguru sozio-ekonomikoari dagokienean.

Dossier honen helburua da Gizarte Ekonomiaren sektoreak EAEn duen egoera aztertzea, enplegu, establezimendu, balio erantsi eta abarrei buruzko oinarritzko datuen bidez, baina, batez ere, kokatzen den ingurunearekin, hau da, lurraldeekin, lotuta. Izan ere, lan-baldintzen okertzearen eta zerbitzu publikoak hainbat eremutan izandako murrizketaren ondorioz gero eta prekarizatuagoa eta ziurgabeagoa den lan-baldintza - eta bizitza-baldintza - eskaintzen duen testuinguru sozio-ekonomiko batean Gizarte Ekonomiak eskualde zein Lurralde Historikoetan duen ezarpen-maila aztertuz, Gizarte Ekonomiaren Sektorearen ikuspegi integralagoa jaso nahi da, kokatzen den testuinguru eta lurralde-garapenari egin diezaiokeen ekarpena aztertuz.

Jakina denez, Gizarte Ekonomiak inguruarekiko eta komunitatearekiko konpromisoa erakusten du (eta, oro har, hala islatzen du bere jarrerak), hots, jarduera ekonomikoaren garapenean onura ekonomikoen aurretik pertsonak lehenesten dira. Beraz, gure ustez, justifikatuta dago arreta enpleguan jartzea, baina horrek ez du esan nahi beste aldagai batzuk alde batera utzi behar direnik, hala nola sektoreko erakundeen kopurua eta erakunde horiek lurraldeko ekonomiari egiten dioten ekarpen ekonomikoa. Horiek guztiak eskuragarri dauden datuen bidez aztertuko dira.

Azken batean, Gizarte Ekonomiaren egoera eta lurraldearekin duen harremana ulertzeko beste tresna bat izan nahi du Dossier honek, haren bilakaera positiboan eta aktiboki eragin ahal izateko.



1.2. OVES/GEEB



OVES/GEEB, Eusko Jaurlaritzak eta UPV/EHUk (GEZKI Zuzenbide Kooperatiboaren eta Gizarte Ekonomiaren Institutuak ordezkaturak) 2008ko abenduaren 30ean sinatutako lankidetzak-hitzarmenaren babesean sortu zen eta horrela Eusko Legebiltzarraren 2008ko apirilaren 25eko 153 zenbakiko Aldizkari Ofizialean horrelako erakunde bat eratzeke beharri buruz jasotako Eusko Legebiltzarraren ebazpenei erantzun zitzaion.

Bestalde, Euskal Gizarte Ekonomiako eragile nagusien laguntza jaso du hasieratik OVES/GEEBek. Horri esker, besteak beste, Aholku Batzorde bat osatu ahal izan da, eta bertan Gizarte Ekonomia sektoreko eragile gehienak daude ordezkaturak:

- ASLE: Euskadiko Lan Sozietateen Elkarte
- EHLABE: Euskal Herriko Lan Babestuen Elkarte
- Euskadiko BGAE Federazioa
- GEZKI: UPV/EHUko Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutua
- GIZATEA: Gizarteratzeko eta Laneratzeko Euskadiko Enpresen Elkarte
- KONFEKOOP: Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa
- Mondragon Unibertsitatea
- REAS Euskadi: Euskadiko Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea
- Deustuko Unibertsitatea

**OVES/GEEB-
ek hasieratik
Euskal
Gizarte
Ekonomiako
eragile
nagusien
laguntza jaso
du .**



Kontseilu Aholku-emailea bi urtez behin biltzen da: lehenengo kontseilua urte naturaleko lehen 6 hilabeteetan egiten da eta bertan Behatokiak urteko bigarren zatirako aurreikuspenekin batera ordura arte egin dituen jardueren berri ematen du; bigarren Kontseilu Aholku-emailea abenduan egiten da, eta bertan urteko jardueren memoria eta hurrengo urterako jardueren plana aurkezten zaizkio kontseiluari. OVES/GEEB fisikoki Carlos Santamaría Zentroan dago, Donostian.

Euskadiko Ekonomia Sozialaren errealitate sozioekonomikoa, juridikoa eta akademikoa sistematizatzeko eta zabaltzeko erreferentziazko erakundea izan nahi du GEEBk.

1.2.1. Behatokiaren egitura

Hiru eduki edo arlo funtzional lantzen ditu GEEBk, sinergiak sortuz.

Arlo sozioekonomikoa: Gizarte Ekonomiako entitateen eta haien ingurune sozioekonomikoaren datu ekonomikoak eta sozio-laboralak bildu, aztertu eta argitaratzea.

- Ekonomia sozialari buruzko datuak bildu eta eguneratzea.
- Ekonomia sozialaren atlasa garatzea eta finkatzea
- Hirugarrenentzako aholkularitza eta beharren arabera datu-bilketa

Arlo juridiko-politikoa: Euskal Ekonomia Sozialari aplikatu beharreko eta indarrean dagoen legedia eta araudi orokorra eta Euskal Ekonomia Sozialari zuzendutako politika publikoak identifikatzea eta aztertzea.

- Ekonomia Sozialaren araudia eta agiriak (legeria, jurisprudentzia, politika publikoak eta ekimen politikoak) jarraitu, eguneratu, sailkatu eta argitaratzea.
- Txosten eta azterketa juridikoak: Gizarte Ekonomiaren legeriari eta araudiari buruzkoak.
- Azterlan juridikoak

Arlo zientifiko-akademikoa: sektoreari dagozkion doktrina-ekoizpenaren jarraipena eta sistematizazioa, Gizarte Ekonomiako Dokumentazio Zentro baten garapena bultzatuz.

- Gizarte-ekonomiari buruzko ekoizpen zientifiko-akademikoa aztertzea eta sistematizatzea: liburuak, aldizkari zientifiko-akademikoak, artikulak, hitzaldiak...
- Gizarte-ekonomiaren ikerketari buruzko nobedadeen hileroko argitalpena, sare nagusien gida, behatokiak..., aldizkari zientifiko-akademikoen fitxak
- Gizarte-ekonomiako prestakuntza eta ikerketa identifikatzea, aztertzea eta laguntzea (TFG, TFM, tesiak, etab.)
- Eskura dauden baliabide zientifiko-akademikoei buruzko aholkularitza

Xedea:

**GEEB Euskal Autonomia
Erkidegoko Gizarte
Ekonomiaren jardura eta
testuingurua (ekonomikoa,
soziala, juridikoa...)
identifikatu, zenbatu,
aztertu eta sozializatzeko
helburuarekin sortu zen,
baita Behatokiaren jardun-
eremuan dauden eta
etorkizunean izango diren
beharrei erantzuteko ere.**



Hiru arloetako baterako lana:

- Gizarte-ekonomiaren hedapena eta ikusgarritasuna
- Hamabostean behin boletina
- Prentsa-oharrak
- Biltzar, hitzaldi eta mintegietan parte hartu eta antolatzea

1.3. GIZARTE EKONOMIAREN UNIBERTSOA

Ekonomia Soziala mugatzeak dakarren konplexutasuna eta errealitateen zabalera eta aniztasuna direla eta komeni da adieraztea GEEB erakundeak CIRIECek egindako definizioa onartzen duela (GEZKI kide da), baina zehaztu eta egokitu egiten du, Euskal Autonomia Erkidegoko zehaztapenetan eta 2011ko Ekonomia Sozialaren Legean oinarrituta.

Hala, EAEko Ekonomia Sozialaren Unibertsoa osatzen duten erakundeen tipologiak biltzen dituen mapa hau proposatzen du GEEB/GEEBk (ikusi 1. Taula).

1_Taula: Euskal Gizarte Ekonomiaren Unibertsoa

Gizarte ekonomiaren unibertsoa		
Enpresa azpisektorea edo merkatuko azpisektorea	Enpresa ez finantzarioak	- Kooperatibak - Lan sozietateak - Enplegu zentro bereziak - Laneratze enpresak - Arrantzale kofradiak - Nekazaritzako eraldakuntza-baltzuak - Merkatuko beste ekoizle pribatuak (elkarteak, fundazioak eta sozietateak)
	Finantza Entitateak	- Kreditu kooperatibak - Borondalezko Gizarte Aurreikuspen Erakundeak
Merkatukoak ez diren ekoizleen azpisektorea	- Gizarte-Ekintza Elkartek - Gizarte-Ekintza Fundazioak - Etxeen zerbitzura dauden beste irabazi-asmorik gabeko erakunde batzuk	

Iturria: egileak egina

1.4. METODOLOGIA ETA INFORMAZIO ITURRIAK

Dossier hau egiteko bi informazio-iturri nagusi erabili dira. Alde batetik, gizarte-ekonomiari buruzko datuak biltzeko, Eusko Jaurlaritzak kooperatibei, lan-sozietateei eta gizarte-ekonomiako forma berriei buruz bi urtean behin egiten dituen txostenak erabili dira. Bestalde, lurraldeko testuinguru sozioekonomiko orokorrari buruzko datuei dagokionez, EUSTAT izan da informazio-iturria zeinek hiru lurralde historikoentzako egiten dituen hainbat estatistika.

Erabilitako metodologiari dagokionez, esan behar da Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu sailak bere estatistikak argitaratzerakoan erabiltzen dituen eskualdeen bi sailkapen ezberdin erabili direla; horrenbestez, Dossier honetan datu batzuk EAEko 20 eskualderentzat jaso dira eta beste batzuk 11 eskualderentzat. Hurrengo orrialdeko 1. Mapan EAEko eskualdeak sailkapen bakoitzaren arabera ikus daiteke eta 2 Taulan eskualdeen arteko baliokidetasuna jasotzen da.

Beraz, Behatokiak Gizarte Ekonomiaren sektorea irudikatzeko garatutako berariazko adierazle batzuk sortzeko lanaz gain, EUSTATEk eskainitako beste aldagai batzuk ere egokitu behar izan ditu.

Bestalde, kooperatibei eta lan-sozietateei buruzko datuak eskuragarriagoak dira gizarte-ekonomiako forma berriak izenekoan aldean (horrela izendatzen ditu Eusko Jaurlaritzaren bi urtez behingo estatistikak gizarte-ekonomiako gainerako familiak), batez ere lurralde-banaketari dagokionean, eta, horren ondorioz, alderdi batzuei buruzko azterketa ez da guztiz osoa gizarte-lurraldearen hainbat sektoretako ekonomiaren ikuspegitik.


Azkenik, EAEko Gizarte Ekonomiari buruzko Txosten honetan adierazle geografikoen sistemaren (QGIS) erabilera nabarmentzen da, sektoreari eta lurraldeei buruzko datuak mapen bidez adieraziko baitira. Horrela, lurraldeari lotutako irudi egiazkoa eta ikusgarraiagoa eskaini nahi da, gure lurraldeen errealitatea eta aniztasuna zuzenean eta intuizioz ezagutu ahal izateko.

Konplexutasun metodologiko nagusiak datuak lortzeko iturrien aniztasunari loturikoak dira, izan ere, beharrezkoa baita ariketaren une desberdinetan informazioa biltzea.

1.5. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ESKUALDEAK

Lurralde Txosten hau egiterakoan, ondorengo 1. Mapan ikusten den eskualde-banaketak erabili dira. Beheko 2. Taulan erabilitako bi eskualde-sailkapenen arteko baliokidetasuna jasotzen da.

1_Mapa: EAEko eskualdeak sailkapen ezberdinen arabera: 20 edo 11 eskualde



Iturria: Guk egina

2_Taula: Eskualdeen baliokidetasuna

1 eskualdea: GASTEIZ	Arabako Ibarra, Arabako Lautada, Arabako Mendialdea, Errioxa Arabarra
2 eskualdea: AIARALDEA	Kantauri Arabarra, Gorbeia Inguruak
3 eskualdea: ESKUINALDEA	Bilbo Handiaren eskuinaldeko herriak
4 eskualdea: BILBO	Bilbo hiria
5 eskualdea: EZKERRALDEA	Bilbo Handiaren ezkerraldeko herriak, Enkantarzioak
6 eskualdea: BIZKAIKO KOSTA	Plentzia-Mungia, Gernika-Bermeo, Markina-Ondarroa
7 eskualdea: DURANDALDEA	Durangaldea, Arratia-Nerbioi
8 eskualdea: DONOSTIALDEA	Urola-Kostaldea, Donostialdea, Bidasoa-Beherea
9 eskualdea: TOLOSA-GOIERRI	Tolosaldea, Goierri
10 eskualdea: DEBAGOIENA	Deba Garaia
11 eskualdea: DEBABARRENA	Deba Behera



OVES
GEEB



2. ZATIA: TESTUINGURU SOZIOEKONOMIKOA

**DEMOGRAFIA
JARDUERA EKONOMIKOA
LAN MERKATUA
GIZARTE EGITURA**



OVES
GEEB




2.1. DEMOGRAFIA

Demografiari buruzko lehen atal honetan hurrengo adierazleak aukeratu dira: biztanleria osoa, populazioaren dentsitatea, biztanleriaren hazkundera 2010-2021 eta populazioaren ordezkapen-indizea 2021. Horiek izango dira biztanleria-erreferenteak gizarte ekonomiaren zein testuinguru demografikotik garatzen den zehazteko.

2.1.1. EAEko biztanleria, guztira

EAEko biztanleria-egiturari dagokionean nabarmentzekoa da lurralde historikoetako hiriburuek biztanleriaren gain duten erakarpenagatik, eta, batez ere, Bilbo Handia eskualdean dagoen kontzentrazioagatik. Izan ere, Bilbo Handia eskualdea nabarmentzen da 865.635 biztanleekin; Donostialdeak, berriz, 332.941 biztanle ditu, biztanleria-kopuru aldetik hurbilen dagoen eskualdea izanik, eta Arabako Lautadak, 270.131 biztanle.

2_Map: Biztanleria guztira, eskualdeka




Iturria: Geuk egina, Ekonomia Sozialeko ATLASeko (GEEB) datuetan oinarrituta

2.1.2. Biztanleriaren dentsitatea eskualdeka

Biztanleria-dentsitateak lurralde bateko kilometro karratu bakoitzeko biztanle-kopurua zenbatekoa den adierazten du, eta horrek aukera ematen digu termino erlatiboetan konparatzeko, eta ez kopuru absolutuetan. Termino absolutuetan bezala, EAEko hiru hiriburuak dauden eskualdeek dute dentsitatea handiena.

3_Map: Biztanleriaren dentsitatea eskualdeka. 2021.



Iturria: Geuk egina, Ekonomia Sozialeko ATLASeko (GEEB) datuetan oinarrituta


Aipagarriak dira, halaber, Bidasoa Behereko eskualdea, Donostialdearen antzeko populazio-dentsitatearekin, eta Bilbo Handia eskualdea, aipatutako balioak bikoizten dituen. Bestalde, populazio-dentsitate txikia dute Arabako eskualde hauek: Arabako Mendialdea, Arabako Ibarrak, Gorbeia Inguruak, Arabako Errioxa eta Bizkaiko Arratia-Nerbioi, biztanleria-dentsitate txikienetik handienera, hurrenez hurren.

Fenomeno hau aldagai gutxi batzuk kontuan hartuz esplika daiteke, hala nola, lurraldearen giza legea, bizi-kalitatea, ondasun eta zerbitzuetarako sarbidea, lan-eremuak, jarduera-sektore nagusiak, etab., eta ezin da alde batera utzi lurraldearen dimentsioa; izan ere, lurralde txiki samarra denez, populazio-dentsitate handia erakutsi izateko joera dauka.

2.1.3. Biztanleriaren hazkundera 2010-2021

Biztanleria-hazkundeak azaltzen ditu biztanleriak denboraldi jakin batean izan duen aldaketa demografikoa. EAEn, 2008ko krisia hasi zenetik, oso anitza izan da. Eskualde batzutan biztanleria hazi bada ere beste batzuetan murriztu egin da. Esate baterako, Arabako Mendialdeak -%2,1eko bilakaera negatiboa izan du, eta Arabako Errioxak -%1,1eko bilakaera, edo Bilbo Handiak -%1,2ko bilakaera. Kasu horietan, jaiotzak baino heriotza gehiago izan dira, edo, eskualde horietatik, besteak beste, lana, ikasketak eta bizi-kalitate hobeko bat bilatzera atera den biztanleria handitu egin da.

4 Mapa: Biztanleriaren hazkundera. 2010-2021.




Iturria: Geuk egina, Ekonomia Sozialeko ATLASeko (GEEB) datuetan oinarrituta

Aldiz, hazkunde handienak Plentzia Mungia, Arabako Lautada, Gorbeia Inguruak, Urola Kosta eta Tolosaldea eskualdeek izan dituzte (hazkunde handienetik txikienera). Determinatzaileak izan gabe, etazenbaki horien kausa zehatza jakin gabe, immigrazioaren eraginaizan daiteke biztanleriaren hazkunde handi baten arrazoia, etaheriotza kopuru txikiagoan izandako jaiotza-kopuru handiagoa.

2.1.4. Biztanleriaren ordezkapen-indizea

5_Mapa: Biztanleriaren ordezkapen-indizea. 2021.



Iturria: Geuk egina, Ekonomia Sozialeko ATLASeko (GEEB) datuetan oinarrituta

Biztanleria aktiboaren ordezkatzeko-indizea honela zehazten da: 60-64 urte bitarteko biztanleria zati 15-19 urte bitarteko populazioa bider ehun. Indize horrek adierazten du zenbat pertsonak utziko duten adin aktiboa hurrengo urteetan lan-merkatuan sartzen diren 100 pertsonako.

Beraz, biztanleria aktiboaren ordezkatzeko-indizeak antzeko balioak ditu eskualdeen artean, eta adierazle hori apalagoa da lehen sektorean eta landa-eremuetan presentzia handiagoa duten lurraldeetan, non Gipuzkoako eskualdeak nabarmentzen baitira. Indize horrek adierazten du biztanleria aktiboaren zati handi batek talde horretako kide izateari utziko diola, eta horrek agerian uzten du biztanleriren zahartzea eta biztanleria aktiboaren errelebo falta.

2.2. JARDUERA EKONOMIKOA




OVES
GEEB



Jarduera ekonomikoari dagokionez, atal honetarako hurrengo adierazleak aukeratu dira: BPGa per capita, BPG per capitaren bilakaera, BPG per capita jarduera-sektoreka eta establezimenduka. Jarduera ekonomikoaren adierazle horiek hautatuta, ekonomia soziala garatzen den testuinguru demografikoa marrazten jarraitu dezakegu

2.2.1. BPG per capita, eskualdeka. 2019

6_Mapa: BPG per capita, eskualdeka. 2019.



**BPG per capita
sektoreko
errentaren eta
biztanleriaren
arteko
erlazioari
dagokio.**

Iturria: Geuk egina, Ekonomia Sozialeko ATLASeko (GEEB) datuetan oinarrituta

6 Mapan ikus daitekeenez Arabako Errioxa eta Arabako Ibarrek dira BPG per capita handiena duten eskualdeak: 64.234 € eta 54.947 € biztanleko, hurrenez hurren. Arabako Errioxaren kasuan, eskualde horien populazio-egitura hartu behar dugu kontuan. Ikusi dugunez, biztanleria-dentsitate oso baxua dute eskualde horiek, eta, ondorioz, biztanle gehiago dituzten beste eskualde batzuetan baino handiagoa da BPG per capita.

Bestalde, Enkarterriak eskualdea da, oraindik ere, BPG per capita txikiena duen eskualdea, biztanleko 20.873 €. Euskadiko langabezia-tasa handiena duen eskualdea, besteak beste, industriaren pisu txikiak eraginda, eta ekonomiaren dinamismoa sustatzen duten politika urrien ondorioz. Haatik, industria-sektoreak guztizko BPGaren kuota handiagoak dituen eskualdeetan, adierazle honek balio handiagoak hartzen ditu, hala nola, Gorbeia Inguruak, Deba Garaia edo Durangaldea.

2.2.2. BPG per capitaren bilakaera. 2010 - 2019.



OVES
GEEB




BPG per capitaren bilakaera desberdina izan da eskualdeetan zehar 2010-2019 aldian 7. mapan ikus daitekeen moduan.

Datu positiboenak Bidasoa Behereko eskualdean (%23,7) eta Goierrin (%22,7) ageri dira batez ere, eta zifra apalenen artean daude Enkarterriak (%-1,4) eta Arabako Mendialdea (%2,8), bilakaera negatiboa izan duten eskualdeak baitira.

Bestetik, azpimarratu behar da 2020an ez zela lortu biztanleko BPG dagokionean euskal ekonomiak, orohar, 2008ko krisia hasi aurretik lortutako maila produktibora iristea.

7_Mapa: BPG per capitaren bilakaera. 2010 - 2019



Iturria: Geuk egina, Ekonomia Sozialeko ATLASeko (GEEB) datuetan oinarrituta

Eskualde batzuek datu onak izan dituzten arren, hala nola, Tolosaldea-Goierrri, Arabako Errioxa, Donostialdea, Bidasoa Beherea eta Debabarrenak, baina gehiengoak aurreko ziklo ekonomikoan baino maila baxuagoak dituzte.

2.2.3. BPG per capita, jarduera sektoreka, eskualdeko. 2019.

Atal honetan jarduera-sektore bakoitzak produkzio osoan, eskualdeka, duen garrantzia aurkezten da. Ekonomia Sozialaren Atlasak jarduera-sektoreak EUSTAT Euskal Estatistika Erakundeak zehazten duen banaketa irizpide bera aplikatuz bereizten ditu. Jarduera ekonomikoaren adar ezberdinak Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionalako (EJSN - 2009) atalka biltzen dira (ikusi 3. Taula):


3_Taula: Jarduera-sektoreak

Lehenengo sektorea	Nekazaritza: A
Bigarren sektorea	Industria: B-E
Eraikuntza	Eraikuntza: F
Hirugarren sektorea	Zerbitzuak: G-U

Iturria: Guk egina EUSTAT eta CNAEko datuak oinarri hartuta

Hurrengo lau mapetan, Barne Produktu Gordinaren zifrak aurkezten dira, jarduera-sektoreka: lehen sektorea, bigarren sektorea, eraikuntza eta zerbitzuak.

8_Mapa: BPG per capita. Lehen sektorea




Lehenengo sektoreak BPG osoari ekarpen txikiena egiten dio lurraldeguztietan. Plentzia Mungia, Bidasoa Beherea eta Urola kostaeskualeek nahiko pisu handia dute, eskualdeko BPGaren %9,5, %8,1 eta %8, hurrenez hurren.

Bigarren mailan, Gernikako Bermeo, Bilbo Handia, Kantauri Arabarra eta Tolosaldea eskualdeetako jardueren %6 inguru nekazaritzakoak dira, eta gainerako eskualdeetan sektore honen ordezkapena erabat mugatua da.

Iturria: Geuk egina, Ekonomia Sozialeko ATLASeko (GEEB) datuetan oinarrituta


9_Mapa: BPG per capita. Bigarren sektorea

Bestalde, industria-sektoreak askoz presentzia handiagoa du Arabako Ibarretan, Gorbeia Inguruak, Goierriko eta Arabako Errioxako eskualdeetan (%45 eta %59 artean), eta presentzia txikiena duen eskualdeetan, berriz, enpresa-jardueraren %14 da gutxienez.



Iturria: Geuk egina, Ekonomia Sozialeko ATLASeko (GEEB) datuetan oinarrituta

10_Mapa: BPG per capita. Eraikuntza sektorea.




Eraikuntzaren sektoreari dagokionez, balio maximoak Plentzia-Mungia, Urola Kosta eta Bidasoa Beherean daude, baina balio horiek %8tik %9,5era bitartekoak dira, eta balio minimoak Arabako Errioxan eta Arabako Ibarretan dituzte.

Iturria: Geuk egina, Ekonomia Sozialeko ATLASeko (GEEB) datuetan oinarrituta

Azkenik, zerbitzuen sektorea eskualde guztietan erabat ezarrita dagoela ikusi dugu. Gutxienez, EAEko eskualdeetako jardura guztien %30,2 dira; batez ere, nekazaritza handiagoa duten eta jardura ekonomikoari dagokionez dinamismo txikiagoa duten eskualdeetan (%30,2 Arabako Errioxan, %31,3 Arabako Ibarrean eta %35,2 Gorbeia Inguruan); Bilbo Handian (%79,6) eta Donostialdean (%77,5), berriz, %80 inguru. Gainerako eskualdeei dagokienez, zerbitzuen sektoreak eskualdeko balio erantsiaren ekoizpen osoaren %48-66 inguru hartzen du.

11_Mapa. BPG per capita: Zerbitzuen sektorea



Iturria: Geuk egina, Ekonomia Sozialeko ATLASeko (GEEB) datuetan oinarrituta




2.2.4. Establezimentuak

Atal honetan, 2010 eta 2021 urteen arteko establezimenduen hazkundera eta establezimenduen banaketa jarduera-sektoreen arabera erakusten dira.

Establezimenduen hazkundera

12_Mapa: Establezimenduen hazkundera. 2010-2021



2010etik 2021era bitarteko urteak erreferentziaz hartuta, EAEko eskualdeek establezimenduen hazkundera bilakaera ezberdina erakutsi dute.


12. Mapan ikus daitekeen moduan 20 eskualdeetatik 13 eskualdeetan establezimenduen kopurua murriztu egin da: Bidasoa Behera, Debarrena eta Donostialdea eskualdeek izan dute establezimenduen murrizketa nabarmenena.

Iturria: Geuk egin, Ekonomia Sozialeko ATLASeko (GEEB) datuetan oinarrituta

Establezimenduak jarduera sektoreka

Hurrengo lau mapetan establezimenduen ehunekoa erakusten da, jarduera-sektoreka.

13_Mapa: Establezimenduak. Lehenengo sektorea




Iturria: Geuk egina, Ekonomia Sozialeko ATLASeko (GEEB) datuetan oinarrituta

13. Mapan, lehen sektoreak eskualde bakoitzean dituen establezimenduen ehunekoa erakusten da. Ikus daitekeenez, lehen sektorean establezimendu gehien dituzten eskualdeak Arabako Mendialdea, Arabako Errioxa eta Arabako Ibarra dira. Establezimendu gutxien dituzten eskualdeak probintzietako hiriburuak jasotzen dituzten eskualdeak daude: Bilbo Handia (%0,1), Donostialdea (%1,1) eta Arabako Lautada (%3,1).

Bigarren sektorearen dinamika lehenengo sektorearena ez bezalakoa da, 14. mapan ikus daitekeenez.

Industria sektoreko establezimenduen presentzia altuena dute Arabako Errioxan (Araba), Durangaldean (Bizkaia) eta Debararrenan (Gipuzkoa). Aldiz, industria sektoreko establezimenduen presentzia txikia dute Bilbo Handian (Bizkaia), Donostialdean (Gipuzkoa) eta Arabako Mendialdean (Araba).


14_Mapa: Establezimenduak. Bigarren sektorea



Iturria: Geuk egina, Ekonomia Sozialeko ATLASeko (GEEB) datuetan oinarrituta


Establezimenduen analisiarekin jarraituz, aipatu behar da eraikuntzaren sektoreari dagozkien establezimenduen presentzia %4,8 eta %16 artean aurkitzen dela, alegia, presentzia gutxien eta gehien duten eskualdeen arteko balioen tartea 11,2 puntu portzentualekoa da. Horrela, bada, EAEko Tolosaldea, Bidasoa Beherea eta Enkarterri dira eraikuntza sektorean establezimendu gehien dituzten eskualdeak. Hiriburuak aurkitzen diren eskualdeak, ordea, ez dira beraien artean oso desberdinak: Bilbo Handian %12,3, Donostialdean %11,4 eta Arabako Lautadan %10,3.

15_Mapa. Establezimenduak. Eraikuntza sektorea



Iturria: Geuk egina, Ekonomia Sozialeko ATLASeko (GEEB) datuetan oinarrituta

16 Mapa: Establimentuak. Hirugarren sektorea



Azkenik, establezimenduak jarduera-sektoreka aztertzeke, zerbitzuen sektoreari dagokionean bai probintzien artean zein eskualdeen artean desberdintasun handiak ageri dira.

Iturria: Geuk egina, Ekonomia Sozialeko ATLASeko (GEEB) datuetan oinarrituta

Azpimarratzeko da hirugarren sektoreko establezimenduek EAE mailan duten garrantzia. Esate baterako, Bizkaian, balio maximoak Bilbo Handiak ditu non establezimenduen %82,8 hirugarren sektorekoak diren eta ondoren Enkarterriak %65,8ko balioarekin. Gipuzkoan, berriz, balio maximoak Donostialdeak biltzen ditu, %82,2rekin, eta balio txikiena Tolosaldeak %69,3.

Jarduera-sektoreen araberako azterketa honekin amaitzeko, Araba probintziako Arabako Lautada eta Arabako Errioxa eskualdeen arteko alde handiak nabarmendu behar dira, azken eskualde horretan, gainontzeko eskualdeekin alderatuz, hirugarren sektoreko establezimenduek duten presentzia oso baxua baita. Ikus daitekeenez, hiriburuek biltzen dute, nagusiki, hirugarren sektoreko jarduera establezimenduei dagokionean.


2.3. LAN MERKATUA

Lan merkatua aztertzeko, lan merkatuko datuak bildu dira, bai eta lan egiten duten biztanleak ere, jarduera sektoreen arabera. Atal bakoitzean xehetasunez adierazten dira aztertutako adierazleak.

Horrenbestez, Euskadiko 2020ko lan-errealitatearen adierazle nagusiak jaso dira: langabezia-tasa eskualdeka; emakumeen kontratazio-ehunekoa, emakumeen langabezia-portzentajea; kontratazio-ehunekoa; behin-behinekotasunaren ehunekoa; biztanleria okupatua jarduera sektoreka.

2.3.1. Langabezia-tasa eskualdeka

17_Mapa: Langabezia-tasa eskualdeka



Langabezia-tasak ez du aldaketa handirik eskualdeen artean.

EAEko eskualdeen lan-errealitatera hurbiltzeko, oinarritzko dierazle bat aztertuko da: langabezia-tasa eskualdeka.

Iturria: Geuk egina, Ekonomia Sozialeko ATLASeko (GEEB) datuetan oinarrituta

Ez da harritzeko EAE bezalako lurralde txiki batean adierazle honek aldaketa nabarmenik ez izatea eskualdeen artean.

17 Mapan ikus daitekeenez, 6 puntuko aldea dago langabezia-tasa handiena eta txikiena duten eskualdeen artean, hau da, Enkarterria (% 12,4) eta Gorbeia Ingurua (% 6,6) eskualdeen artean. Hala, eskualde gehienek %6,6eta %9,5 arteko langabezia-tasa dute.

Langabezia-tasaren inguruko azterketarekin jarraiki, aurreko hamarkadako krisiaren eragina lausotzen ari dela ondorioztatzen da 4. taulan ikus daitekeenez:

4_ taula. Langabezia-tasa handiena eta txikiena duten eskualdeen bilakaera


Eskualdea	2018	2020	bilakaera (2018-2020)
Enkanterriak	%20	%12,4	-%6,6
Gorbeia Inguruak	%10,1	%6,6	-%3,5

Iturria: Gizarte Ekonomiaren estatistikak 2018 eta 2020

2018ko lurralde-azterketak Bizkaiko eskualdeetan jarri zuen arreta: Enkanterriak, esate baterako, EAEn langabezia-tasa handiena zuen eskualdea zen ia %20ko langabezia-tasa zuelarik eta Gorbeia Inguruak langabezia-tasa txikiena zuen eskualdea izan zen %10 inguruko langabezia-tasarekin. 2020ko datuen arabera, eskualde horiek hobera egin dute, eta langabezia-tasa handiena eta txikiena duten eskualdeak izaten jarraitu arren, datuak hobetu egin dira eta bi eskualdeen arteko diferentzia ia erdira murriztu da. Hau da, 2018an bi eskualdeen arteko diferentzia 9,9 puntukoa bazen 2020an 3,5 puntura jaitsi zen bi balioen arteko aldea.

2.3.2. Emakumeen kontratazioaren ehunekoa

18 Mapa: Emakumeen kontratazioaren ehunekoa



Eskualdeko enpleguaren datu nagusiekin jarraitzeko, kontratazioari buruzko zenbait datu interesgarri aukeratu dira. Alde batetik, 18. Mapak emakumeen kontratazioari dagokionez eskualdeen artean dauden desberdintasunak erakusten ditu.

Iturria: Geuk egina, Ekonomia Sozialeko ATLASeko (GEEB) datuetan oinarrituta


Nabarmentzekoa da, honi dagokionez, EAEko batez bestekoa %50 ingurukoa dela (hau da, 100 kontratu berritik, 50 emakumezkoei egiten zaizkie), baina, eskualdearen arabera, alde nabarmenak daude. Horrek erakusten du zenbait sektore feminizatuk eta maskulinizatuk eskualde batzuetan duten garrantzia. Hala, eskualde gehienetan kontratazioaren %45,3 eta %57,6 artean emakumezkoei bideratuak izan dira. Aipagarriak dira kontratazio-datu onenarekin Enkarterriak (% 57,2) eta Arabako Mendialdea (% 57,6).

2.3.3.Emakumeen langabezia-portzentajea

Bestalde, emakumeen langabezia-portzentajea aztertuz gero, Kantauri Arabarra, Goierri eta Debabarrena dira ehunekorik handiena duten eskualdeak; ehuneko txikiena duten eskualdeen artean, berriz, Arabako Mendialdea eta Arabako Ibarra daude.

Nabarmentzekoa da, ikusten denez, ia eskualde guztietan langabetuen erdiak baino gehixeago emakumeak direla, eta horrek adierazten du kolektibo horrek lan-urrakortasun eta -bereizkeria handiagoa duela gizonekiko.

19_Mapa: Emakumeen langabezia-portzentajea. 2020.




Iturria: Geuk egina, Ekonomia Sozialeko ATLASeko (GEEB) datuetan oinarrituta

OVES
GEEB

2.3.4. Aldi baterako kontratazioen ehunekoa

20_Mapa: Aldi baterako kontratazioen ehunekoa.2020.



Iturria: Geuk egina, Ekonomia Sozialeko ATLASeko (GEEB) datuetan oinarrituta

Azkenik, baina ez garrantzi gutxiagokoa, kontratazio berrien behin-behinekotasunaren datua aurkezten dugu. Izan ere, euskal lan merkatuaren ezaugarri esanguratsuenetako baita. Horrenbestez, eskualde guztietan egindako kontratu berri gehienak aldi baterakoak dira, gutxienez %87,1 (Bidasoa Beherea) eta gehienez %96,9 (Arabako Errioxa). Alegia, eskualde gehienetan, 10 kontratu berritik 9 aldibaterakoak dira.

2.3.6. Biztanleria okupatua jarduera-sektoreka

Jarraian, lau jarduera-sektoreetako biztanleria okupatua erakutsiko da. Jarduera-sektoreek eskualde bakoitzean biltzen duten enpleguari dagokionez, ekoizpenaren eredu berari jarraitzen diote, sortutako balio erantsi gordinari dagokionez, espero den bezala.


Biztanleria okupatua: lehen sektorea

Arabako Errioxan bezala (%21,4) zerealen eta mahatsen laborantzak garrantzitsua duen eremuetan, nekazaritza sektoreak guztira erabilitako lan-indar osoaren bosten bat bereganatzen du.

Zalantzarik gabe, Araba probintziako hainbat eskualde nabarmentzen dira lehen sektorean biztanleria okupatu tasa altuenekin.

Gainerako probintzietako eskualdeek, balio txikiagoak dituzte: Enkarterriak %4,1, Bilbo Handiak %0,3 edo Donostialdeak %0,5.

21_Mapa: Biztanleria okupatua (%). Lehen sektorea



Iturria: Geuk egina, Ekonomia Sozialeko ATLASeko (GEEB) datuetan oinarrituta




OVES
GEEB



Biztanleria okupatua: Bigarren sektorea

Lehen ikusi dugun bezala, industriak nolabaiteko garrantzia du zenbait euskal eskualdetan, batez ere Gipuzkoako barnealdean: adibidez, Debagoiena eskualdean industria-jardueretan diharduten langile guztien %38,7a osatzen dute. Horren atzetik eta probintzia berean daude Debabarrena (%33,8) eta Goierri (%37,2) eta Bizkaia probintzian Markina-Ondarrua (%32) eta Durangaldea (%32,7) eskualdeak.

22_Mapa: Biztanleria okupatua (%). Bigarren sektorea.




Iturria: Geuk egina, Ekonomia Sozialeko ATLASeko (GEEB) datuetan oinarrituta

Biztanleria okupatua: Eraikuntza sektorea

Eraikuntza-sektorean EAEn lan egiten duten biztanleen portzentajea %3 eta %7 artekoa da eskualdeen arabera: Debagoiena eskualdeak du gutxieneko balioa (%3,3) eta Arabako Ibarak eskualdeak, aldiz, balio handiena (%7,3).

23_Mapa: Biztanleria okupatua (%). Eraikuntza sektorea




Iturria: Geuk egina, Ekonomia Sozialeko ATLASeko (GEEB) datuetan oinarrituta



Biztanleria okupatua: Hirugarren sektorea

Zerbitzu klasikoen sektorearen zati handi bat osatzen duten merkataritza eta konponketa jarduerak eskualdeko enpleguan duten pisu erlatiboari dagokionean, euskal hiriburuak dauden eskualdeek dute gainontzeko eskualdeek baino enplegu-maila handiagoa izateko joera, besteak beste, hiriburuak jasotzen dituzten eskualdeek duten biztanleria-dentsitate handiagoaren ondorioz.

24_Mapa. Biztanleria okupatua (%). Hirugarren sektorea.



Iturria: Geuk egina, Ekonomia Sozialeko ATLASeko (GEEB) datuetan oinarrituta

Hala, eskualdeetako datuak erreparatuz gero jarduera-sektore nagusia zerbitzu sektorea den eskualdetan, adibidez, Arabako Errioxa eskualdea eta Bilbo Handiaren kasuan biztanle okupatuaren %49,3 eta %80,6ak, hurrenez hurren, zerbitzu sektorean dihardu.. Azpimarratzekoak dira ere, balio handiak erakusten dituztelako, Donostialdea, Plentzia-Mungia, Bidasoa-Beherea eta Arabako Lautada eskualdeak ere.



2.4. GIZARTE EGITURA


EAEko gizarte-egitura aztertzeko hurrengo adierazleak aukeratu dira: Euskadiko Errenta (familia-errenta, errentaren bilakaera eta errentako genero-desberdintasuna) eta lurraldeko biztanleen prestakuntza-maila (oinarrizkoa, ertaina edo handiagoa) dira.

2.4.1. EAEko Errenta maila

Familia errenta

Batez beste,
EAEko familia
errenta
46.000€
ingurukoa da

25_Mapa: Familia errenta



Iturria: Geuk egina, Ekonomia Sozialeko ATLASeko (GEEB) datuetan oinarrituta

25. Mapan ikus daitekeen moduan, familia-errentak alde nabarmenak ditu EAEko eskualdeen artean: batez beste, familia-unitate batek 36.262€/urtean jasotzen ditu Arabako Errioxan, eta Plentzia-Mungia-ko familia-unitate batek batez beste ia 55.000€/urtean.


EAEko familia-unitate batek batez beste, urtean 46.000€ inguruko errenta jasotzen du; balio horren gainetik daude Gipuzkoa lurraldeko eskualde guztiak (Bidasoa Behera izan ezik) zein Durangaldea, Plentzia-Mungia, Gorbea eta Arabako Mendialdea. Guztiek hobetu dituzte datuak 2018ko urtekoarekin alderatuz gero.

Familia errentaren bilakaera. 2009-2019

Aldagai honen bilakaerari dagokionez, eskualde batzuek oraindik ere 2008ko krisi ekonomikoak lurralde guztiak astindu zituen unean lortu zituzten baino balio txikiagoak dituzte.

Zentzu horretan, aztertutako 19 eskualdeetatik, hauek dira bilakaera kaxkarrena izan duten eskualdeen zerrenda: Arabako Ibarra (%1), Arabako Lautada (%2), Debagoiena (%5), Kantauri Arabarra (%6), Enkarterriak, Bilbo Handia eta Gernika-Bermeo (%7). Araba eta Bizkaiko lurralde historikoan daude denak. Aldiz, Arabako Mendialdea eskualdeak bilakaera onena izan du.


26_Mapa: Familia errentaren bilakaera. 2009-2019.



Iturria: Geuk egin, Ekonomia Sozialeko ATLASeko (GEEB) datuetan oinarrituta

Genero desberdintasuna errentan

27_Mapa: Genero arrakala



Gure eskualdeen gizarte-egitura hobeto ezagutzeko beste alderdi interesgarri bat errentako genero-arrakala izan daiteke. Horrek erakusten digu emakumeek eta gizonezkoek batez beste jasotzen duten errenta pertsonalaren arteko aldea.

Iturria: Geuk egin, Ekonomia Sozialeko ATLASeko (GEEB) datuetan oinarrituta



EAE osorako batezbesteko errenta-arrakal %60koa da, gure gizartean dagoen lanaren sexu-banaketaren kopuru adierazgarri eta kezkagarria. Errenta-arrakala handienak dituzten eskualde batzuetako datuak nabarmentzen dira, hala nola Arabako Mendialdeko eta Gernikako eskualdeetakoak (% 79 eta % 69, hurrenez hurren). Horietan, emakumeek gizonen baino bi heren gehiago jasotzen dituzte.

Batazbete, EAEko errenta-arrakala %60ko da

2.4.2. Formakuntza

Biztanleen formakuntza arautuaren mailari dagokionez, hiru maila ezberdintzen dira: oinarrizkoa, lehen hezkuntza barne hartzen duena; ertaina, lanbide heziketari dagokiona; eta goi-mailakoa, unibertsitateko prestakuntza jasotzen duena. Hurrengo hiru mapek eskualdeko errealitatera hurbiltzeko aukera ematen dute.


Oinarrizko formakuntza

28. Mapak erakusten duenez, Oinarrizko formakuntzak %23,2ko balioa du Plentzia Mungia eskualdean. Baliorik txikiena duen eskualdea da non biztanleriaren ia laurden batek lehen mailako ikasketak bakarrik dituela adierazten duen.

Balio handienak dituzten eskualdeak, berriz, bat egiten dute lehen sektoreak presentzia handiena duten eskualdeekin; Arabako Errioxako biztanleen %42,2ak oinarrizko formakuntza du.

Eskualdeen batezbestekoa %34 ingurukoa da.

28_Mapa: Oinarrizko formakuntza (%)




Iturria: Geuk egina, Ekonomia Sozialeko ATLASeko (GEEB) datuetan oinarrituta

*Sailkapen honetatik kanpo geratzen da: ikasketarik gabe, garrantzigtuxiko datuak baitira gainerako taldeen aldean.

29_Mapa: Formakuntza ertaina (%)

Bataz beste, EAEko biztanleriaren ia %50ak Lanbide Heziketako ikasketak ditu.


Datuek erakusten duten bezala eta oinarritzko hezkuntzako datuakin batuta, oinarritzko edo erdi mailako ikasketak ditu biztanleriak, oro har.



Iturria: Geuk egina, Ekonomia Sozialeko ATLASeko (GEEB) datuetan oinarrituta

Goi-mailako Formakuntza

30_Mapa: Goi-mailako Formakuntza



Iturria: Geuk egina, Ekonomia Sozialeko ATLASeko (GEEB) datuetan oinarrituta

Bataz beste, EAEko biztanleriaren ia %17ak Goi-mailako Formakuntza du.

30. Mapan ikusten denez, orohar, Arabako eskualdeetan biztanle portzentaje txikiagoak du goi-mailako formakuntza, Arabako Lautadan izan ezik non biztanleen %18,4ak goi-mailako ikasketak dituen.

Bizkaia eta Gipuzkoako eskualde gehienetan, berriz, biztanleriaren %17ak edo gehiagok du goi-mailako formakuntza.



OVES
GEEB



3. ZATIA: GIZARTE EKONOMIA EAE-N

**SARRERA
GIZARTE EKONOMIAREN UNIBERTSOA
GIZARTE EKONOMIA KLASIKOA**



3.1. SARRERA

Dossier honen hirugarren zatiak, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-ekonomiaren lurralde-errealitatean jartzen du arreta.

Horretarako, sarrerako atalean aurreratu dugun moduan, enpleguari, establezimenduei eta izaera orokorreko bestelako datu ekonomikoei buruzko datuak erabiliko dira. Datu horiek Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzak argitaratu ditu, "Gizarte Ekonomiaren Estatistika 2020 eta 2021 aurrerapena" txostenean.

Goian aipatu den txosten horretan gizarte-ekonomiaren sektorearen tratamentua kontuan izanik, lehenik eta behin, gizarte-ekonomiaren ikuspegi orokorra eskainiko da, EAEko sektore osorako oinarritzako datu orokor eta agregatuekin, eta, kasu batzuetan, baita hiru lurralde historikoena ere.

Ondoren, lurralde-azterketa bereiziagoa egin ahal izango dugu zeinetan kooperatibak eta lan-sozietateak bakarrik jorratuko diren, hau da, Ekonomia Sozial Klasikoa. Lehen aipatutako Gizarte Ekonomiaren Estatistikak sektoreko familien artean egiten duen bereizketa jarraituko du.

Era berean, aipatu behar da Dossier honetan, aurreko lanen ildotik, eskualde mailan eskuragarri dauden datu desagregatuen azterketan jarri dugula arreta, eta, beraz, ez direla sartu Gizarte Ekonomiari buruzko beste elementu eta aldagai interesgarri batzuk. Horretarako, interesa duen orok Eusko Jaurlaritzaren txostena eta Gizarte Ekonomiaren Euskal Behatokiaren (OVES/GEEB) web orria kontsultatzera gonbidatzen dugu.



3.2. GIZARTE- EKONOMIAREN UNIBERTSOA

Sarrerako atalean ikusi dugunez, gizarte-ekonomiaren sektorea ingurunearekiko eta komunitatearekiko konpromisoa partekatzen duten familiek osatzen dute, eta horrek esan nahi du jarduera ekonomikoaren garapenean pertsonak lehenesten direla.

Horrenbestez, gure lurraldean Gizarte Ekonomiaren Unibertsoa osatzen duten familia guztien datu erantsiak aurkeztuko ditugu: kooperatibak, lan-sozietateak, enplegu-zentro bereziak, gizarteratze-enpresak, arrantzale-kofradiak, eraldaketarako nekazaritza-sozietateak, onura publikoko elkarte eta fundazioak eta borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeak.

Familia horiek guztiek, beren aniztasunean, gizarte- eta enpresa-jarduera mota guztiak hartzen dituzte, hala nola, finantza zerbitzuak, nekazaritza, industria, zerbitzuak, kontsumoa edo hezkuntza, beti ere, hurrengo ezaugarriak kontuan hartuz: pertsonen kapitalaren aurrean duten zentraltasun-printzipioa, irabazi asmorik gabeko jarduera ekonomikoaren garapena non emandako lanaren eta helburu sozialaren arabera lortutako emaitzen printzipioa aplikatu den, barne-konpromisoa eta komunitatearekiko konpromisoa eta, azkenik, botere publikoekiko independentzia.

Zoritxarrez, lehen esan dugun bezala, Gizarte Ekonomiako Unibertso osoarentzat ditugun datuekin, lurralde osoaren erradiografia orokor bat baino ezin da egin.

3.3. GIZARTE EKONOMIA BERE OSOTASUNEAN. 2020.

Beste atal batzuetan esan den bezala, gizarte-ekonomiari dagokionez, 2020rako adierazle hauek hautatu dira: Gizarte Ekonomiaren 2020ko guztizko zifrak (establezimenduak, urteko enplegua, fakturazioa, soldatak eta ordainsariak, emaitzak eta balio erantsia); enpleguaren banaketa eta fakturazioa 2020an; ordaindutako enpleguaren bilakaera, establezimenduak eta fakturazioa 2004-2021ean; 2020ko enplegua lurralde historikoka; GEko enpleguak GEko enplegu osoan duen pisu erlatiboa 2020; GEko establezimendu gordinak, 2020; GE, lurralde historikoka; GE 2020ko establezimenduak, lurralde historikoen arabera; eta, azkenik, GE 2020ko Balio Erantsi Gordina, lurralde historikoen arabera

3.3.1. Gizarte Ekonomiaren zifra orokorrak. 2020.

Gizarte-ekonomiaren sektoreak (GEK eta GEBF) 5.067 establezimendu izango lituzke 2020an EAE mailan. Establezimendu hauek 86.463 lanpostu ordaindu sortu zituzten. Horrez gain, enpresa eta gizarte-sare honek 2020an garatu zuen jardeurak 10 mila milioi euroko fakturazio maila ditu lortu zuen eta 3,3 mila milioi euroko Balio Erantsi Gordina sortu zuen, alegia. EAEko BEGaren %5 inguru.

2018rako bildutako datuekin alderatuz, establezimendu kopurua apurka-apurka hazi egin da; 2020an 130 establezimendu berri gehiago zeuden baita ordaindutako urteko enplegu kopurua ere, 1.006 lanpostu gehiago zeudelarik 2020an. Bestalde, gizarte-ekonomiak 10 mila milioi euro fakturatu ditu 2020an, 2018an baino 600 milioi gutxiago, COVIDaren eragina izan daitekeelarik azalpenetako bat. Azpimarratzekoa da, 2020an euskal gizarte-ekonomiak lortutako 206 milioi euroko emaitzak 2018an lortutako mozkinen %35era murriztu direla, nagusiki industria-sektorearen mozkinak modu esanguratsuan murriztu baitira.

5_Taula: Gizarte Ekonomiaren datu orokorrak. 2020.

Gizarte Ekonomia Guztira (GEK eta GEBF)	2018	2020
Establezimenduak (#)	4.937	5.067
Urteko enplegu ordaindua (#)	85.457	86.463
Fakturazioa (milioi €)	10.634	10.073
Soldata eta ordainsariak (milioi €)	3.029	3.071
Emaitzak (milioi €)	571	206
Balio Erantsi Gordina (milioi €)	3.405	3.327


Iturria: Gizarte Ekonomiaren estatistika eta aurrerapena. 2020-2021.

3.3.2. Enpleguaren banaketa eta Gizarte Ekonomiaren fakturazioa. 2020.

Eusko Jaurlaritzaren 2020ko estatistikak gizarte-ekonomiari buruz emandako datu nagusiak aztertu ondoren, atal honetan gizarte-ekonomiaren enpleguaren banaketa eta fakturazioa aztertzen dira. Familia bakoitzaren pisuari dagokionez, 1. grafikoan argi ikusten da kooperatibak direla, alde handiarekin, erakunde ugariak eta dimentsio ekonomiko handiena dutenak.

2020an kopuru absolutuetan, kooperatibek 53.524 lanpostu eskaini dituzte, hau da, gizarte-ekonomiako enplegu totalaren ia %62a, eta horien fakturazioak euskal gizarte-ekonomia osoaren %74 biltzen du.

1 Grafikoa: Enpleguaren banaketa eta Gizarte Ekonomiaren fakturazioa. 2020.



Iturria: Gizarte Ekonomiaren estatistika eta aurrerapena. 2020-2021.

Enpleguaren analisiarekin jarraituz, fundazioek 12.673 lanpostu eskaintzen dituzte, eta guztizkoaren ia %15a. Aldiz, fakturazioa kontuan hartuz gero, guztizko fakturazioaren %4,4a baino ez dute ordezkatzen. Antzeko zifrak dituzte enplegu-zentro bereziek 10.626 enplegurekin, enplegu guztien %12,3a eta gizarte-ekonomiaren fakturazio osoaren %3,1arekin



Erakunde horietatik apur bat urrun daude 6.878 lanpostu eskaintzen dituzten baina aurreko biak baino gehiago fakturatzen dituzten lan-sozietateak, kopuru osoaren %5,9a. Oso hurbiletik daude Onura Publikoko Elkarteak (5.037 lanpostu) eta gizarte-ekonomiaren fakturazioaren %1,4arekin


Bestalde laneratze-enpresek, eraldaketarako nekazaritza-sozietateek eta arrantzale-kofradiek enpleguaren %1, %0,3 eta %0,1 biltzen dute, hurrenez hurren, eta GEreren fakturazio osoaren %0,2, %0,6 eta %0,7a. Azkenik, BGAEek 72 lanpostu eskaintzen dituzte, gainerako erakundeekin alderatuta kopuru txikia bada ere gizarte-ekonomiaren %10,5a fakturatzen dute.

3.3.3. Ordaindutako enpleguaren, establezimenduen eta fakturazioaren bilakaera. 2004-2021.

Analisiarekin jarraituz, 2. Grafikoan 2004. urtetik 2021. urtera bitarteko enplegu-aldagaien, fakturazioaren eta gizarte-ekonomiako establezimenduen bilakaera ikus daiteke. Enpleguari dagokionez, 2004az geroztik, enplegua 60.000 enplegu inguru izan da, eta krisiaren ondorengo urteetan bakarrik nabari da beherakada handia izan dela 2012, 2014 eta 2016 urteen artean.

2018an, krisiaren aurreko balioak berreskuratu dira. Aztertutako grafikoaren arabera, establezimendu-kopurua ez da aldatzen aztertutako urteetan (2021 urterako ez dago establezimenduei buruzko daturik).

2. grafikoa. GEko enplegu, fakturazio eta establezimenduen bilakaera 2004 - 2021




Iturria: Gizarte Ekonomiaren estatistika eta aurrerapena. 2020-2021.

Aldiz, fakturazioak enplegu eta establezimenduekin alderatuz gero aldaketa handiagoak izan ditu. Hala, 2006 eta 2008 bitartean, fakturazioak daturik onenak aurkeztu zituen, eta krisiaren ondorioz, fakturazioak behera egin zuen 2018ra arte; eta beheranzko joera mantendu du fakturazioak 2018-2020 aldian ere.

Azpimarratzekoa da, halaber, gizarte-ekonomiak bilakaera motela izan duela 2010etik aurrera. Goiko 2. grafikoan errekupeazioaren eragina ikus daiteke, azaletik bada ere, eta argi dago zaila dela aurreko hamarkadan izan zuen joerari eustea eta hura areagotzea, alegia, ekonomia-jarduera nabarmen handitzen ari zen (enplegu- eta fakturazio-kopuru handiagoa) garaiko datuak gaituzte.

3.3.4. Enplegua Gizarte Ekonomian, lurralde historikoka. 2020.

31_Mapa: Enplegua GE, lurralde historikoka. 2020.



Iturria: Geuk egina, Ekonomia Sozialeko ATLASeko (GEEB) datuetan oinarrituta

EAEko hiru lurralde historikoetako gizarte-ekonomiako enpleguaren banaketa geografikoari dagokionean, banaketa ez da ekitatiboa: Gipuzkoan, 42.681 lanpostu daude, EAEko GEk biltzen dituen enplegu guztien ia erdia, Bizkaian 34.640 lanpostu daude; eta Araban, berriz, EAEko Gizarte Ekonomiaren baitan dauden gainerako 9.141 enplegu biltzen dira




Datu horiek adierazgarriak dira, eta erakusten dute gizarte-ekonomiaren ezarpena, enpleguari dagokionez, handiagoa dela Gipuzkoan, eta txikiagoa Araban eta, batez ere, Bizkaian, batik bat, EAEko biztanleria okupatu osoa kontuan izaten bada. EAEko biztanleriaren banaketa hurrengoa baita: %52 Bizkaian, %33 Gipuzkoan eta %15 Araban.

3.3.5. GErren enpleguaren pisu erlatiboa enplegu totalarekiko, lurraldeka. 2020>.

32_Mapa: GErren enpleguaren pisu erlatiboa, lurraldeka. 2020.

Gizarte Ekonomiaren 2020ko Estatistikak emandako datuen arabera, Gizarte Ekonomiak, batez beste, Euskal Autonomia Erkidegoko guztizko enpleguaren %9,3 biltzen du.



Iturria: Geuk egina, Ekonomia Sozialeko ATLASeko (GEEB) datuetan oinarrituta

Baina azterketa lurralde-mailara jaisten bada, Gipuzkoa baino ez dago batz besteko horren gainetik non 100 lanpostutik 13 lanpostu baino gehiago gizarte-ekonomiako erakunderen batek eskaintzen duen; Bizkaian, berriz, pisu erlatiboa % 7,1koa da, eta Araban, % 6,3koa.

3.3.6. GEren establezimenduak, lurraldeka. 2020.

33_Mapa: GEren establezimentuak, lurraldeka. 2020.




Ikusi dugunez, gizarte-ekonomia 5.067 establezimenduk osatzen dute. Kasu honetan, enpleguarekin ez bezala, Bizkaian kokatzen dira EAEko establezimendu gehienak (2.350, ia erdiak), Gipuzkoan GEko 1.924 establezimendu daude eta, azkenik, Araban gainerako 793 establezimendu.

Iturria: Geuk egina, Ekonomia Sozialeko ATLASeko (GEEB) datuetan oinarrituta

33. Mapan ikusten denez eta orain arte ikusitakoa datuak kontuan hartuta, Bizkaiko eta Arabako establezimenduak Gipuzkoan baino txikiagoak direla ondorioztatu daiteke; izan ere, azken lurralde historiko honek, 426 establezimendu gutxiago izanik, Bizkaiak baino 6041 lanpostu gehiago biltzen ditu. Arabak, establezimendu guztien ia %16 biltzen ditu baina EAEko Gizarte Ekonomiako enplegu guztien %11 inguru, alegia, lurralde honetako enpresak txikiagoak dira, batez ere Gipuzkoako errealitatearekin alderatuta.

3.3.7. GEren Balio Erantsi Gordina, lurraldeka. 2020.

34_Mapa: GEren BEG, lurraldeka. 2020.



Iturria: Geuk egina, Ekonomia Sozialeko ATLASeko (GEEB) datuetan oinarrituta

Azkenik, 2020an sortutako Balio Erantsi Gordinaren banaketa geografikoa enpleguaren banaketarekin parekatzen da. Horrela, EAEko Gizarte Ekonomiak 2020an sortutako BEGaren (3,4 mila milioi euro) erdia baino gehiago Gipuzkoan kokatutako establezimenduei dagokie (1,78 milioi € inguru). Jarraian, Bizkaiako Gizarte Ekonomiako establezimenduak sortu dute aipatu BEGren 1,15 milioi €, eta Arabako Gizarte Ekonomiari dagokio sortutako urteko BEGaren gainerakoa.



3.4. GIZARTE EKONOMIA KLASIKOA

EAEko Gizarte Ekonomia osoaren hurbilketa orokorra egin ondoren, Gizarte Ekonomia Klasikoa deritzonari buruz eskualdeka bereizitako datuak aztertuko ditugu, Eusko Jaurlaritzaren "Gizarte Ekonomiaren Estatistika 2020 eta Aurrerapena 2021" delakoak ulertzen eta kontuan hartzen duen moduan.

Kooperatibek eta lan-sozietateek (mugatuak nahiz anonimoak), historikoki sektorearen partetzat hartu izan diren gizarte-ekonomiako forma "tradizionalek", osatzen dute gizarte-ekonomia klasikoa, eta, sektore osoa aztertzean ikusi dugunez, ekonomia-muskulu handiena dutenak dira. Alde horretatik, gogoratu behar da, jarraian datuak modu agregatuan aurkezten diren arren (kooperatibak eta lan sozietateak batera), kooperatibek dutela pisu handiena aldagai guztietan.


Gizarte Ekonomia Klasikoa aztertzeko, adierazle hauek jaso dira: GE klasikoa 2020 enplegua, eskualdeka; GE klasikoaren enpleguaren pisu erlatiboa 2020, eskualdeka; GE 2020ko industria-enplegua; ES2020ko zerbitzu-sektoreko enplegua; GE 2020 establezimendu-kopurua; GE 2020ko fakturazioen esportazioak; GE 2020ko itxurazko produktibitatea, eskualdeka.

3.4.1. GE klasikoa, enplegua, eskualdeka. 2020.

35. Mapan ikus denez, EAEko Gizarte Ekonomia Klasikoaren osoaren enpleguen erdiak baino gehiago (%52,3) Gipuzkoako Lurralde Historikoan daude.

Gizarte Ekonomia Klasikoaren Enpleguen banaketa eskualde mailan aztertuz gero, Gipuzkoa Lurraldeko Debagoiena eta, Donostialde eskualdeek eta Bizkaiako Durangaldea eskualdeak biltzen dituzte Gizarte Ekonomia Klasikoaren baitan biltzen diren enplegu gehienak, enpleguen %20,4, %19,3 eta %10,1, hurrenez hurren.

35_Mapa: GE klasikoa: Enplegua, eskualdeka. 2020.




Iturria: Geuk egina, Ekonomia Sozialeko ATLASeko (GEEB) datuetan oinarrituta

Dena dela, azpimarratzekoa 2018tik 2020ra bitartean EAE mailan %2,2ko enplegu galera izan bada, Debagoienak eta Eskuinaldeak GE klasikoko enpleguen %7,3 inguru galdu dituztela epe berean, Gasteiz eta Tolosa-Goierri eskualdeek GE Klasikoko enpleguen %2,2 inguru galdu dituzte. Aldiz EAEko gainontzeko 7 eskualdeetan GE klasikoko enpleguak hazkunde positiboa izan du 2018-2020 aldian. Datu positiboekin agertzen diren eskualdeak Ezkerraldea, Bilbo eta Aiaraldea dira non GE Klasikoko enpleguak %7,9 , %7,7 eta %6,1 hazi diren, hurrenez hurren.

3.4.2. GE klasikoaren enpleguen pisu erlatiboa, eskualdeka. 2020.

36. Mapan, Gizarte Ekonomia Klasikoaren erabilerak eskualde bakoitzeko enplegu osoan duen pisu erlatiboa jaso da; antzeko egitura du, baina alde batzuekin. Hala, beste behin ere, Gizarte Ekonomia Klasikoak Debagoienean duen garrantzia nabarmentzen da (% 44,4); %4 puntu jaitsi da izan ere 2018an %48ko pisu erlatiboa baitzuen. Euskal kooperatibismoaren sorlekua izan da duela zenbait hamarkadaz geroztik, eta oraindik ere presentzia nabarmena du. Horren ondorioz, bi enplegutik bat kooperatiba edo lan-sozietate bati dagokio.

36_Mapa: GE klasikoaren enpleguaren pisu erlatiboa eskualdeka. 2020.



Iturria: Geuk egina, Ekonomia Sozialeko ATLASeko (GEEB) datuetan oinarrituta


Era berean, sektore honetako enpleguak garrantzi erlatibo nabarmena du Tolosa-Goierrin (%11,3) eta Durangaldean (%11,2), izan ere eskualde horiek bikoiztu egiten dute EAEko batez besteko osoa. Batez besteko horren gainetik (% 6,5), Bilbo (% 10,4), Bizkaia-Kosta (% 8,3) eta Debabarrena (% 7,3) daude; gainerako eskualdeak, berriz, batez bestekoaren azpitik daude.

3.4.3. GE klasikoaren enplegua industria sektorean, eskualdeka. 2020.

Jarduera-sektorearen arabera enpleguari erreparatuta, industria-sektoreko 28.397 lanpostuetatik gehienak (%54) Gipuzkoako hiru eskualdetan pilatzen dira: Debagoienean (8.124), Donostialdean (3.578) eta Tolosa-Goierrin (3.588).

Bizkaia Lurraldean, Bizkaia-Kostako eskualdean (2.488) eta Durangaldean (2.501) ere bada halako kontzentrazioa. EAEko gainerako eskualdeek Gizarte Ekonomia Klasikoak industria sektorean dituen enpleguen %28.58a jasotzen dute.


37_Mapa: GE klasikoa: Lanpostuak industrian, eskualdeka. 2020.



Iturria: Geuk egin, Ekonomia Sozialeko ATLASeko (GEEB) datuetan oinarrituta

3.4.4. GE klasikoaren enplegua zerbitzuen sektorean, eskualdeka. 2020.

38_Mapa: GE klasikoa: Lanpostuak zerbitzu sektorean, eskualdeka. 2020.



Zerbitzuen sektoreari dagokionez, EAEko hiriburuek dira horrelako enpleguak erakartzen dituztenak, sektore honetako 33.000 lanpostu biltzen baitituzte. Donostialdean %21a, Bilbon %29a eta Gasteizen %10a. Zerbitzu-sektoreko enplegu gutxien duten eskualdeak Aiaraldea (481 lanpostu), Debabarrena (693 lanpostu) eta Bizkaia-Kosta (1876 lanpostu) dira.


Iturria: Gizarte Ekonomiaren estatistika eta aurrerapena. 2020-2021.

3.4.5. GE klasikoa, establezimendu kopurua eskualdeka .2020.

39_Mapa: GE klasikoren establezimenduak, lurraldeka. 2020

Gizarte-ekonomia gure lurraldean errotuta dagoela esan daiteke, izan ere gizarte-ekonomiako familia guztiak kontuan izanezkerok 5.067 establezimendu baitaude.

Hala ere, gizarte ekonomia klasikoari soilik erreparatzen badiogu, berezitasun hauek ikusten dira 39. Mapan:




Iturria: Gizarte Ekonomiaren estatistika eta aurrerapena. 2020-2021.

Gizarte Ekonomia klasikoko 3.424 establezimendu, hau da, kooperatiba eta lan-sozietate daude. Establezimendu horietatik gehienak Bizkaian daude (%44,6 inguru), ondoren Gipuzkoan (%40,5) eta azkenik Araban (%14,9). Gipuzkoa lurraldearen kasuan Gizarte Ekonomia Klasikora mugatzen denean azterketa, establezimenduen portzentai handiagoa biltzen duela ikusten da. Gizarte Ekonomia forma guztiei dagokien establezimenduen %38 dago Gipuzkoan aldiz kooperatiba eta lan-sozietateen %40,5a biltzen da lurralde berean.

3.4.6. GE klasikoa, establezimendu kopurua eskualdeka .2020.

40_Mapa: GE klasikoren establezimenduak, eskualdeka. 2020

Bestalde, Gizarte Ekonomia Klasikoko establezimendukopurua, orohar, enpleguaren banaketaren eredu bera da. Hain zuzen ere, beste behin ere, Donostialdeak eta Bilbok establezimendu ugari dituzte, eta, ondoren, Gasteiz aurkitzen da (hiru eskualdeen artean, guztira 3.424 establezimendu daude, hau da, establezimenduen %69a).



Iturria: Gizarte Ekonomiaren estatistika eta aurrerapena. 2020-2021.


Kasu honetan, deigarria da Debagoieneko establezimenduen kontzentrazio nahiko txikia (guztizkoaren %6,8a), jakinik Gizarte Ekonomia Klasikoko enplegu totalaren %14 inguru biltzen duela. Beraz, gizarte ekonomia klasikoko entitate handiak dituen eskualde bat dela ondorioztatu daiteke. Izan ere, kontuan hartu behar da industria-sektoreak garrantzi handia duela bai sektore banaketari dagokionez baita establezimenduen tamaina dagokionean ere eskualde jakin honetan.

3.4.7. 2020ko GE klasikoko esportazioen erlazioa fakturazioarekiko, eskualdeka.

41. Mapan, berriz, GE klasikoko establezimenduek egindako esportazioek fakturazioan duten garrantzia ageri da, eskualdeka, eta horrek salmenten nazioartekotze-maila islatzen du. Horri dagokionez, industria gehien dagoen eskualdeetako esportazioen garrantzia azpimarratu behar da. Horrenbestez, Goierri (%55,9), Debagoienarekin (%54,5) eta Debarrenarekin (%49,8) batera nabarmentzen da.

Aurreikusi daitekeenez, zerbitzuen sektoreak garrantzi handiagoa duen eskualdeetan, esportazioek fakturazioan duten garrantzia ez da hain handia.

41_Mapa: Esportazioak fakturazioarekiko, eskualdeka. 2020.




Iturria: Gizarte Ekonomiaren estatistika eta aurrerapena. 2020-2021.

3.4.8. ES klasikoaren itxurazko produktibitatea eskualdeka 2020

Azkenik, 42. Mapak Euskal Autonomia Erkidegoko eskualdeetako itxurazko produktibitatea erakusten du, hau da, Gizarte Ekonomia Klasikoko sortutako Balio Erantsi Gordina langileko eskualde bakoitzean.


Ikusten denez, Gasteiz eskualdeak du itxurazko produktibitate altuena, ez da nabarmentzen enplegu-masa handiak biltzen dituelako. Ondoren, Aiaraldea, Debagoiena eta Tolosa-Goierrri daude non industria-sektoreak pisu handiagoa duen.

42_Mapa: GE klasikoaren itxurazko produktibitatea eskualdeka. 2020.



Iturria: Gizarte Ekonomiaren estatistika eta aurrerapena. 2020-2021.

Aldiz, zerbitzuen sektorea nabarmentzen den eskualdeetan, oro har industriak baino produkzio txikiagoa duen sektorea izanik, itxurazko produktibitatea ere txikiagoa da.





OVES
GEEB



GEZKI

4. ZATIA: ONDORIOAK

ONDORIOAK: GIZARTE EKONOMIAREN DATUEN AZTERKETA, DATU SOZIODEMOGRAFIKOEI DAGOKIENEZ

Laugarren eta azken atal honetan, ondorio gisa eta lurraldeko testuinguru sozio-ekonomikora hurbilketa bat egin ondoren, alde batetik, Gizarte Ekonomia Klasikoaren eskualde-profilaren erradiografia zehatz bat jasotzen da, eta bestetik, datu esanguratsuenetako batzuk aurkezten dira modu integratuan, sektorearen errealitatea hobeto ulertzeko baliagarria izan daitekeela uste baita.

Dosierrean agerian geratu den bezala, gogoratu behar da, halaber, Gizarte Ekonomiaren eskualde mailako errealitatea jasotzen duten datuen eskuragarritasun mugatua dela eta, ondorio edo laburpen gisa jarraian aurkezten den kartografia errealitatearen hurbilketa bat baino ez dela izango.

Beraz, Gizarte Ekonomiaren bigarren Lurralde Txosten honen hasieran aurreratu den bezala, gizarte-ekonomiaren egoera eta lurraldearekin duen harremana ulertzeko lagunduko duen tresna bat gehiago izanen da, Gizarte Ekonomiaren bilakaera positiboan eta aktiboan eragin ahal izango duena, eta datu erabilgarriek ahalbidetzen duten neurrian osatzen joango dena.


Ondoren azaltzen diren mapetan, eskualde bakoitzaren koloreak lehenengo aldagaiari egiten dio erreferentzia eta, zenbakizko datuak aztertutako bigarren aldagaiari.

Banaketa hori kontuan hartu behar da emaitzak behar bezala irakurtzeko. Adibide gisa, 43. mapan (“Establezimendu-kopurua eta biztanleria-dentsitatea”), kolore-gamak establezimendu-kopurua adierazten du; datuek, berriz, biztanle-dentsitatea adierazten dute, eta horrela hurrenez hurren.

4.1. Populazioaren dentsitatea eta establezimendu kopurua

Gizarte Klasikoaren datuak orokorrekin hasteko, 43. mapak, alde batetik, eskualde bakoitzeko biztanleria-dentsitatearen datuarekin batera establezimenduen kopurua adierazten da. Biztanleria-dentsitate handiena duten eskualdeek pilatzen dute jarduera sozioekonomiko handiena, kasu honetan, establezimendu kopuru gehiena.

43_Mapa: Establezimendu kopurua eta populazio dentsitatea



Iturria: Ekonomia Sozialeko ATLASeko (GEEB) datuetan oinarrituta eta Gizarte Ekonomiaren estatistika eta aurrerapena. 2020-2021.


Horrela, 11 eskualdeetatik 2 eskualdetan, Bilbo eta Donostialdean (biztanle-dentsitatea handiena duten eskualdeek) Gizarte Ekonomia Klasikoko establezimenduen ia erdia kontzetratzen da.

4.2. Eskualdeko langabezia-tasa eta kooperatibek eta lan-sozietateek enpleguan duten pisua (%)

Ildo beretik, 44. Mapak eskualdeko langabezia-tasa eta Gizarte Ekonomia Klasikoak enplegu totalean duen pisu erlatiboa alderatzen ditu.

Ikus daitekeenez, Gipuzkoako eskualdeetan hartzen du garrantzi erlatibo handiena gizarte-ekonomia klasikoari loturiko enpleguak, eta, aldi berean, eskualde horien langabezia-tasa EAEko batez bestekoaren azpitik dago (%10,6an 2020 urtean, Eustaten datuen arabera).

44_Mapa: Eskualdeko langabezia-tasa eta kooperatibek eta lan-sozietateek enpleguan duten pisua (%)




Iturria: Ekonomia Sozialeko ATLASeko (GEEB) datuetan oinarrituta eta Gizarte Ekonomiaren estatistika eta aurrerapena. 2020-2021.

Aipatzekoa da Debagoiena eskualdea, non langabezia-tasa EAEko batez bestekoa baino ia 4 puntu txikiagoa den.

4.3. Urteko per capita BPGa eta kooperatiben eta lan-sozietateen enpleguaren pisua eskualdeko enpleguan.

45. Mapan ikusten dugunez, Arabako Gasteiz eskualdeak zein Bizkaiako Eskuinaldea eskualdeak per capita BPGaren maila handienetakoa duten EAEko bi eskualde dira baina aldi berean bi eskualde horietan Gizarte Ekonomia Klasikoari loturiko enpleguaren pisu erlatiboa txikia da. Aldiz, Gipuzkoako Tolosa-Goerri eskualdeak bai urteko biztanleko BPG altua zein Kooperatibek eta Lan Sozietateek eskualdeko enplegu osoan pisu erlatibo handia duen EAEko eskualde bakarra da.

45_Mapa: Urteko per capita BPGa eta kooperatiben eta lan-sozietateen enpleguaren pisua eskualdeko enpleguan




Iturria: Ekonomia Sozialeko ATLASeko (GEEB) datuetan oinarrituta eta Gizarte Ekonomiaren estatistika eta aurrerapena. 2020-2021.



4.4. Erregistratutako langabeziaren feminizazioa eta ES klasikoaren pisua enplegu osoan, eskualdeka

Lurralde-txosten honen bigarren atalean ikusi dugunez, euskal eskualde gehienetan, langabetuen erdiak baino gehixeago emakumeak dira (ikus 20. mapa), eta horrek adierazten du kolektibo horrek lan-urrakortasuna eta diskriminazio handiagoa duela gizonekin alderatuz gero.

46_Mapa: Erregistratutako langabeziaren feminizazioa eta GE klasikoaren pisua enplegu osoan, eskualdeka



Iturria: Ekonomia Sozialeko ATLASeko (GEEB) datuetan oinarrituta eta Gizarte Ekonomiaren estatistika eta aurrerapena. 2020-2021.


46. Mapan, langabeziaren feminizazio horrek hartzen dituen balio zehatzak jaso dira, eta GizarteEkonomia Klasikoaren garrantziarekin lotu da. Begien bistakoa da EAEko langabeziaren feminizazioa txikiena duten 4 eskualdeetatik 3 Gipuzkoakoak direla (Debagoiena, Donostialdea, Tolosa-Goierrri) eta aldi berean, aipatu 3 eskualde gipuzkoar hauetan gizarte ekonomia klasikoak ere garrantzi handia du enplegu osoarekin alderatzean.

4.5. Kontratazio berrien behin-behinekotasun tasa (%) eta enplegua GE klasikoan

47. Mapan aztertzen diren beste aldagai batzuk kontratazio berrien behin-behinekotasun tasa (%) eta GE Klasikoaren enpleguaren presentzia dira.

Ikusten denez, alde handiak daude Gizarte Ekonomia Klasikoaren enpleguaren eta kontratazio berrien behin-behinekotasunaren arteko erlazioari dagokionez; izan ere, aldi baterako enpleguaren tasa txikiagoak eta GE klasikoan enpleguak presentzia nabarmena duten eskualdeak daude alde batetik (Debarrena, Donostialdea, Goierri), eta bestetik, behin-behinekotasun tasak batez bestekotik behera duten eskualdeak baina Gizarte Ekonomia Klasikoan enpleguaren presentzia ez oso esanguratsua duten eskualde multzo bat baitago.

47_Mapa: Kontratazio berrien behin-behinekotasun tasa (%) eta enplegua GE klasikoan



Iturria: Ekonomia Sozialeko ATLASeko (GEEB) datuetan oinarrituta eta Gizarte Ekonomiaren estatistika eta aurrerapena. 2020-2021.


4.6. Eskualde mailako BEG industrialia (%) eta GE klasikoko industria-enplegua

Amaitzeko, eskualde bakoitzeko sektoreen (industria eta zerbitzuak) Balio Erantsi Gordinaren datuak aurkezten dira.

Bistan denez, industria-sektoreak garrantzi handiagoa du eskualdeko ekoizpen-sarean, eta, beraz, gizarte-ekonomia klasikoaren industria-enplegua ere garrantzitsuagoa izaten da.

Bi alderdi horiek agerian geratzen dira, batez ere Debagoienean, non lurralde horretako BEG osoaren ia erdia industria-sektoreari baitagokio, eta GE klasikoak sektore horri 8.124 lanpostu bideratzen dizkio, bai eta Tolosa-Goierrikoa kasuan ere, non 3.588 lanpostu gora biltzen diren.

48_Mapa: Eskualdeko BEG industrialia (%) eta GE klasikoko industria-enplegua



Iturria: Ekonomia Sozialeko ATLASeko (GEEB) datuetan oinarrituta eta Gizarte Ekonomiaren estatistika eta aurrerapena. 2020-2021.




4.7. Zerbitzu sektorearen BEG eskualdeka (%) eta GE klasikoaren enpleguaren zerbitzu sektorean

Zerbitzu sektorearen garrantzia nabarmena da EAEko eskualde guztietan, hau da, eskualde guztietan BEGren %42 baino gehiago zerbitzu sektoreri loturikoa da. Bestalde, aurretik 11. mapan ikusi denez, zerbitzu sektoreak garrantzi erlatibo handia du, batez ere Bilbo Handia, Bidasoa, Durangaldea edo Arabako Lautada eskualdeetan.

Antzera, Gizarte Ekonomia Klasikoaren baitan ere zerbitzu sektoreko enpleguaren zati handi bat biltzen da Bilbo, Durangaldea eta Donostialdean.

49_Mapa: Zerbitzu sektorearen BEG eskualdeka eta GE klasikoaren enplegua zerbitzu sektorean.



Iturria: Ekonomia Sozialeko ATLASeko (GEEB) datuetan oinarrituta eta Gizarte Ekonomiaren estatistika eta aurrerapena. 2020-2021.

ERABILITAKO BALIABIDEAK

Eusko Jaurlaritza, (2022): Gizarte Ekonomiaren estatistika 2020 y aurrerapena 2021. <https://www.euskadi.eus/estadistica/tablas-estadisticas-de-la-estadistica-de-economia-social-2020-y-avance-2021/web01-s2lanju/es/>

Gizarte Ekonomiaren Euskal Behatokia OVES/GEEB. (2022): Gizarte Ekonomiaren ATLASa 2022. Consultado en [<https://gislan.shinyapps.io/GEEB/>]

ERANSKINA

6_TAULA: Gizarte Ekonomiako enpleguaren eta fakturazioaren banaketa erakunde motaren arabera. 2020.

	Enplegua	Fakturazioa (%)
Kooperatibak	53524	74
Lan Sozietateak	6878	5,9
Fundazioak	12673	4,4
Enplegu Zentro Bereziak	10626	3,1
Herri onurako elkarteak	5037	1,4
Laneratze Enpresak	839	0,2
SAT	140	0,6
Arrantzaleen kofradiak	96	0,7
BGAE	72	10,5

Iturria: Gizarte Ekonomiaren estatistika eta aurrerapena. 2020-2021.



**OVES
GEEB**



**Gizarte Ekonomiako Euskal Behatokia
Observatorio Vasco de Economía Social**